

KODE ETIKOA

Edizioa	Aldatutako atalak	Aldaketen deskribapena	Data
2.0 bertsioa	Zenbait atal	HRS4R printzipioei egokitzea	2020ko ekainaren 18a



EDUKIA:

1. HITZAURREA. KODE ETIKOAREN XEDEA	3
2. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA.....	3
3. KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA.....	3
4. KODE ETIKOAREN ONARPENA ETA BETETZEKO OBLIGAZIOA	4
5. JOKABIDE PROFESIONALERAKO ARAU OROKORRAK	4
6. BETETZE BATZORDEA	12
7. KODE ETIKOA INDARREAN JARTZEKO DATA ETA INDARRALDIA	12



1. HITZAURREA. KODE ETIKOAREN XEDEA

Kode etiko (aurrerantzean, «kode etikoa») honen xedea da CENTRO DE INVESTIGACIÓN COOPERATIVA EN NANOCIENCIAS – CIC nanoGUNE ELKARTEAN (aurrerantzean, «CIC nanoGUNE») izan beharreko printzipio eta jokabideak zehaztea, erakunde horren jarduerak gauzatzean etikan eta jokamolde profesional zuzen batean oinarritutako kultura bat ezartzen eta sendotzen dela bermatzeko.

Kode etikoa nazioartean, estatuan eta sektorean aitzatetsitako estandar altuenetan oinarritzen da, ikerketa-jarduerei dagokienez, eta CIC nanoGUNEren Arrisku Penalen Prebentzio Programan txertatutako funtsezko dokumentu bat da. Horren xedea da abiapuntu gisa jardutea erakundeak estandar horiek eta legea betetzeko duen konpromiso irmoa erakusteko, alor penalaren prebentzioarekin lotutako guztia nabarmenduz, bereziki.

Horrela, kode etikoaren xedea da etikaren aldeko kultura eredugarria islatzea, bai eta CIC nanoGUNEren ezaugarri diren balioak zerrendatzea ere. Horrela, betetzearen kulturaren oinarritutako azpiegitura bat sustatu nahi da erakundearen, hala arlo penalean nola hortik kanpo.

CIC nanoGUNE elkarlanean aritzen da bere jardueraren kokaleku den komunitatearekin. Gizarte horren balio eta espektatiben arteko beharrezko oreka sustatzen eta bermatzen du eta, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomikoa eta gizarte-ekintza bultzatzen ditu.

2. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA

Kode etikoa CIC nanoGUNEko kide guztiek bete beharrekoa da, edozein izanik ere erakundearekin lotzen dituen kontratu mota, posizio hierarkikoa edo funtzionala. Arreta berezia ipiniko dute kode etikoa betetzean Zuzendaritza Batzordeko kideek, zuzendariak eta Sail/Ikerketa-taldeetako arduradunek. Horiek izendatzeko, «profesional» hitza erabiliko da, banako batez ari garenean, eta «profesionalak», langile horiek talde bezala ulertu behar direnean.

Horrela, CIC nanoGUNE osatzen duten Sail/Ikerketa-talde bakoitzean egiten diren jardueren kalterik gabe, erakundeko profesional guztiek kontuan izango dituzte kode etiko honetan jasotako xedapen guztiak, eta horien arabera jokatu.

Gainera, kode etiko hau aplikatu zaie CIC nanoGUNEK kontratatzen dituen enpresa eta profesionaleri ere, baldin eta kontratatutako jarduerak CIC nanoGUNEren jardueraren esparrurako garrantzitsua bada. Zentzu horretan, enpresa eta profesional horiei eskatuko zaie, sinatzen duten kontratuan, arrisku penalaren prebentzioaren arloko neurriak hartu dituztela adierazteko.

3. KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA

Kode etikoaren xedea ez da CIC nanoGUNEren ohiko jardunean gerta litezkeen kasu guztiak jasotzea edo arautzea. Aitzitik, erakundeko profesionalen jokabidea gidatuko duten irizpide batzuk ezartzea da helburua bai eta, dagokionean, beren jardun profesionala zuzentasunez gauzatzean izan litzaketan zalantzak argitzeko pautak zehaztea ere.



Kode etikoaren edo Arrisku Penalen Prebentzio Politikako beste edozein dokumenturen inguruko edozein zalantza izanez gero, zuzeneko arduradun hierarkikoari galdetuko zaio edo, bestela, Betetze Batzordeari.

4. KODE ETIKOAREN ONARPENA ETA BETETZEKO OBLIGAZIOA

CIC nanoGUNEko profesional guztiek kode hau ezagutu, onartu eta bete behar dute, bai eta ezagutzeko eta ulertzeko beharrezko prestakuntza egin ere, kodeak ondorio guztiak izan ditzan. Dokumentu hau, Arrisku Penalen Prebentzio Politikarako Programa osatzen duten gainerako dokumentuekin batera, nahitaez bete beharrekoa da.

Profesionalek kode etikoa betetzeko obligazioa izango dute, bertan jasotako balioak eta printzipioak errespetatuz, eta bertan ezarritako jokabide-pautak ere bete beharko dituzte.

Horrela, profesionalek, eta batik bat beren kargura beste profesional batzuk dituztenek, kode etiko honetan jasotakoa bete eta betearazi beharko dute, dokumentu honetan ezarritakoarekin bat egiten duten jarduketak, jarduerak eta ekintzak sustatuz.

CIC nanoGUNEk profesionalen artean ezagutzera eman du kode etikoa, bakoitzari kopia bat emanda eta testua webgunera igota. Edonola ere, profesional guztiek kode etikoa betetzeko konpromisoa hartu beharko dute, idatziz.

5. JOKABIDE PROFESIONALERAKO ARAU OROKORRAK

Kode etiko honek CIC nanoGUNEko profesionalek bete beharreko jokabide-arau batzuk ezartzen ditu:

- (i) Legea betetzea eta delituzko jokabideak prebenitzea.
 - CIC nanoGUNE eta bertako profesional guztiek indarreko legedia errespetatzen dute, eta ezagutu egin behar dituzte aplikatzekoak diren lege nazionalak eta sektorialak, bai eta araudiak, protokoloak eta arauak ere, hala instituzionalak nola barnekoak, eta kontratuetak baldintzak, babesleekin ezarritakoak barne. Laburbilduz, CIC nanoGUNEko profesional guztiek egiten duten ikerketa-jarduna arautzen duen araudia eta kontratuko klausulak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, batik bat norberaren Sailei/Ikerketa-taldeei eragiten dieten Arrisku Penalen Prebentzio Programan jasotakoak, eta profesionalek gaiaren inguruko prestakuntza jasoko dute.
 - Horrela, CIC nanoGUNEko eta bertako profesionalek ez dute inoiz jardun irregularrik egingo, horiek edozein motatakoak direla ere, batik bat iruzurrezko edo legez kanpoko jardueri dagokienez, bereziki CIC nanoGUNErentzat edo profesionalentzat berentzat zuzenean edo zeharka onurak dakartzaten ekintzak badira, nagusiki balizko delituak egitea eragin dezaketen jokabideei dagokienez.
- (ii) Aukera-berdintasuna errespetatzea eta laneko segurtasuna sustatzea.
 - CIC nanoGUNEko bermatu egiten du langileen hautaketa, kontratazio eta ordainsarien politketan eta



praktiketan, enpleguko baldintzetan edo profesionalek prestakuntza eta promozioak eskuratzeko aukeretan merezimenduari eta gaitasunaren irizpideen arabera jokatzeko delakoa eta, edozein kasutan, gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen delakoa. Era berean, bermatu egiten da inork ez duela diskriminaziorik jasoko arrazagatik, sexuagatik, nazionalitateagatik, desgaitasunagatik, sinesmenengatik edo beste edozein baldintza pertsonal, fisiko edo sozialengatik. Ildo berean, CIC nanoGUNEk bermatu egiten du profesional guztiak modu objektiboan ebaluatzen dituela, beren jardun profesionalaren arabera.

- Era berean, CIC nanoGUNEk profesionalek beharrezko prestakuntza jasotzen dutela bermatzeko politikak gauzatzen ditu, errespetuan oinarritutako lan-giroa eta indarkeria, abusu edo jokabide oldarkor oren errefusa sustatuz, edozein motatakoa izanik ere, batik bat jazarpen edo abusu fisiko, sexual, psikologiko edo hitz bidezkoen prebentzioari dagokionez.
- Gainera, CIC nanoGUNEk laneko arriskuen prebentzio-politika egoki bat sustatzen eta aplikatzen du, ikerketa-lanetan ari direnean profesionalen osasuna zaintzen duten jardunbide segurua erabiltzen direla bermatuz. Gainera, profesional guztiak behar bezala jakinarazten zaizkie, eta benetan betetzen direla zaintzen da. CIC nanoGUNEko profesionalek laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak betetzeko obligazioa dute, laneko arrisku posibleak prebenitu eta minimizatzeko helburuarekin.

(iii) Iruzuraren kontrako borroka.

- CIC nanoGUNEk lan egiten du bere jarduerak gauzatzean Legea errespetatzen dadin eta ustelkeria mota ororen kontra egin dadin. Horrela, CIC nanoGUNEk uko egiten dio ustelkerian edo jardun desleialtan oinarritutako jarduketara, hitzarmen edo emakida orori, delakoa erakunde pribatuekin egindakoak, delakoa agintaritzara edo funtzionario publikoekin egindakoak. Ildo horretan, iruzurraren praktikarik ez egiteko konpromiso irmoa du, kapitalak zuritzea, eroskeria edo influentzia-trafikoa barne, besteak beste, hornitzaileekin, lehiakideekin eta administrazio publikoekin dituen harremanetan.
- Horri dagokionez, CIC nanoGUNEko profesionalek ezingo dute, zuzenean edo izen-mailegataile baten bitartez, justifikatu gabeko abantaila edo onurarik eskaini, eman, eskatu edo onartu, horien xedea bada CIC nanoGUNErentzako, beren buruarentzako edo hirugarren batentzako onura bat lortzea, unean bertan edo etorkizunean. Zehazki, ezingo diote inolako eroskeriarik eman beste alderdi bati, ez eta horrelakorik jaso beste alderdi batengandik. Beste alderditzat joko dira, besteak beste, Espainiako zein atzerriko funtzionario publikoak, beste enpresetako langileak, alderdi politikoak, agintariak, bezeroak eta hornitzaileak. Eroskeria-ekintzak espresuki debekatuta daude, beraz, eta barne hartzen dute edozein abantaila desegoki eskaini edo hitz ematea, horren estalketarako edozein bitarteko edo influentzia-trafikoa.
- Ildo berean, CIC nanoGUNEko profesionalek ez dute promesik egingo eta ez dute opari edo konpentsaziorik emango, horien xedea bada administrazioen, organo judizialen edo politikoen izapideak bizkortzea edo horien emaitza bermatzea edo baldintzatzea. Opariei edo beste edozein ordainsariri dagokionez, debekatuta daude, tokiko ohituren arabera kortesiazkotzat jo daitezkeenak



izan ezik, Oparien Protokoloan ezarritakoaren arabera.

- Bestalde, profesionalek interes-gatazkako egoera oro saihestuko dute, profesionalen interesak eta CIC nanoGUNErenak bat ez datozenean. Horrelakoetan, profesionalek beren zuzeneko arduradun hierarkikoari eman beharko diote egoeraren berri, Betetze Batzordeari jakinaraz dakion eta horrela gatazka amaitzeko beharrezko neurriak hartu ahal izan daitezen, kasuaren arabera.

(iv) Informazio finantzarioaren barne-kontrola.

- CIC nanoGUNEren informazio ekonomiko-finantzarioak egoera ekonomikoa, finantzak eta ondarea modu fidelean islatuko ditu, betiere orokorrean onartutako kontabilitateko printzipio eta informazio finantzarioaren nazioarteko arau aplikagarrien arabera. Horretarako, profesionalek ez dute informaziorik ezkutatu edo manipulatu kontabilitateko erregistro eta txostenetan, eta informazio hori osoa, zehatza eta egiazkoa izango da beti.
- Horrela, CIC nanoGUNEk ardura handiz jokatu du bere jarduerak gauzatzean, eta bermatuko du jasotzen dituen funts edo ordainketa guztiek legezko jatorria dutela, kapitalak zuzentzea eta terrorismoaren finantzaketa saihesteko.

(v) Gardentasuna eta leialtasuna zerga-agintaritzeari eta funts publikoen erabilera egokiari dagokienez.

- CIC nanoGUNEk konpromisoa hartzen du zerga alorrean jardunbide egokien arabera jokatzeko, Finantza Baliabideen Kudeaketa Ereduaren arabera, zerga-araudia uneoro betez eta harreman egokia izanez Gipuzkoako Foru Ogasunarekin. Horrela, debekatu egiten da mozkin desegokiak lortzea, bai eta zergen, atxikipenen edo atxiki behar ziren diru-kopuruen ordainketa saihestea ere, eta gauzako ordainketen bidez edozein diru-sarrerara jasotzea, horien bidez itzulketa desegokiak eskuratzen badira. Era berean, debekatuta dago indarreko arauak ezarritako betebeharrak ez betetzea, edo kontabilitatea, liburuak edo erregistroak eramatean betebeharrak ez betetzea.
- Ildo horretan, administrazio publikoaren dirulaguntzak, desgrabazioak edo laguntzak lortzen direnean, CIC nanoGUNEk bermatu egiten du funts horiek eman ziren xedeetarako erabiliko direla eta jasotako funts publikoak eraginkortasunez erabiliko direla.

(vi) Jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen errespetua.

- CIC nanoGUNEk izan ditzakeen jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak errespetatzen eta defendatzen ditu, bai eta hirugarrenenak ere.
- Batik bat, profesionalek beti zorrotasun osoz errespetatuko dituzte hirugarrenek izan ditzaketen jabetza intelektualeko eskubideak beren ikerketa-lanean. Era berean, egiten dituzten ikerketak ez dira inoiz izango aurretiaz arrakastaz egindako beste bat kopiatzekoak, edo hirugarren baten jabetza



intelektuala den emaitza dutenak. Horri dagokionez, ikerketa batean behaketa edo aurrerabideak baliozkotzeko esperimentu batzuk azaltzea edo errepikatzea ez da hartuko hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideen urraketa gisa, betiere baliozkotu behar den informazioa espresuki aipatzen bada eta egindako azalpena eta/edo errepikapena horretarako erabilgarria eta egokia bada.

- Horrez gain, beren titulartasunekoak diren edo legez esleituta dituzten jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak eta hirugarrenenak babesteko, CIC nanoGUNEko profesionali debekatu egiten zaie, besteak beste, jarduera hauek egitea:
 - ✓ Lan literario, artistiko edo zientifiko bat banatzea, plagiatzea, kopiazea edo publikoki jakinaraztea, egile-eskubideekin babestua badago, jabetza intelektualeko eskubideen titularren edo lagapen-hartzaileen baimenik gabe.
 - ✓ Hirugarren erakunde baten zeinu adierazgarri (marka) berbera edo oso antzekoa kopiazea, imitatzea, aldatzea edo eskubiderik gabe erabiltzea (jabetza industrialeko eskubidearen bidez erregistratutako produktu, zerbitzu, jarduera edo establezimendu berak edo antzekoak bereizteko), erregistratutako eskubidearen titularren idatzizko baimenik gabe.
 - ✓ Funtsean patenteen bidez babestutako prozedurak edo emaitzak inportatzea, edukitzea, erabiltzea, eskaintzea edo merkaturatzea, titularren baimenik gabe.

(vii) Harremanak interes-taldeekin.

- CIC nanoGUNEren interes-taldeak erakunde horren jarduerarekin zuzeneko edo zeharkako harremana duten pertsonak, erakundeak, enpresak, instituzioak edo kolektiboak dira.
- CIC nanoGUNEK konpromisoa hartzen du berekin lotutako interes-taldeekin dituen harremanak legea betetzean eta elkarrekiko errespetuan eta konfiantzan oinarritzeko.
- Zehazkiago, kideei dagokienez, CIC nanoGUNEK konpromisoa hartzen du informazio gardena, argia, egiazkoa eta osoa emateko, CIC nanoGUNEren jardunean balioa etengabe sortzen dela eta ikerketan lan esanguratsu eta oparoa gauzatzen dela bermatuz.
- Bezeroei dagokienez, CIC nanoGUNEK konpromisoa hartzen du horien behar eta espektatibei erantzuteko. Horretarako, kontratuan itundutako terminoen arabera jokatuko dute profesionalak, eta termino horien arabera entregatuko dituzte emaitzak. Era berean, konpromisoa hartzen du konfiantza, gardentasuna, bikaintasun profesionala eta babesa oinarri dituzten harreman komertzial iraunkorrak sustatzeko, bezeroei buruzko informazio guztiaren konfidentzialtasuna bermatuz eta horiek hirugarrenei ez jakinarazteko konpromisoa hartuz, salbu eta bezeroaren baimena izanez gero edo legezko obligazioa dela eta, ebazpen judicial edo administratiboak betetzeko.
- Bezeroen datu pertsonalak lortu, erabili eta tratatzean, intimitaterako eskubidea eta datuen babesari buruzko legeria betetzen dela bermatuko da, bai eta gainerako eskubideak ere, informazioaren gizartearen zerbitzuei buruzko legerian eta gainerako arau aplikagarrietan jasotakoak.



- Bestalde, hornitzaile eta kontratistei dagokienez, CIC nanoGUNEK konpromisoa hartzen du, halaber, konfiantzan eta informazioaren gardentasunean oinarritutako harremanak sustatzeko. Horretarako, independentziaren eta objektibotasunaren arabera gauzatuko ditu hornitzaileak eta kontratistak hautatzeko prozesuak, kaudimena, egokitasun teknikoa, kalitatea eta prezioa irizpide gisa baliatuz. Hornitzaile eta kontratistek kode etikoaren edukia bere egin beharko dute.
- Lehiakideei dagokienez, CIC nanoGUNEK konpromisoa hartzen du merkatuan modu leialean jarduteko, lehiakideak eta legea zorrotz errespetatuz. Hirugarrenen informazioa lortu beharko balitz, legearen arabera egingo da beti, salbuespenik gabe. Inola ere ez da onartuko CIC nanoGUNEko profesional batek parte hartzea beste enpresa bateko sekretuak edo lehiakideen edozein motatako informazio pribilegiatua eskuratzeko jardueretan.
- Azkenik, administrazio publikoari dagokionez, CIC nanoGUNEren jardueran beti errespetatuko da administrazio publikoa eta, kasu guztietan, helburu izango da legea benetan betetzea, agintariekin elkarlanean arituz beren funtzioak gauzatzen ari direnean edo parte hartzeko eskatzen zaion auditoria eta ikuskapen orotan, eta une oro saihestuz CIC nanoGUNEren aldeko tratua eragin lezaketen opariak ematea, administrazio publikoarekin dituen harremanetan.

(viii) Zuzendaritza-batzordeko kideen eta zuzendarien ereduzko portaera.

- CIC nanoGUNEko zuzendaritza-batzordeko kideek eta zuzendariak erreferente izan behar dute profesionalentzat. Beren eguneroko jardunean, integritatearen eta arauak betetzearen kultura sustatuko dute, eta CIC nanoGUNEK hartutako printzipio eta balioen etengabeko adibidea izango dira, bai eta kode etiko honetan bildutako konpromiso guztiena ere.
- Era berean, profesional guztiek Corporate Compliance gaiaren inguruko prestakuntza egin, ulertu eta barneratu dutela egiaztatu beharko dute.
- Bestalde, laguntza emango dute profesionalek kode etiko honi edo Arrisku Penalen Prebentzio Programaren parte den edozein dokumenturi buruz duten edozein zalantza edo kezka aurrean, Betetze Batzordearekin batera, eta ez dute inoiz emango legearen edo kode etiko honen edukien kontrako jarraibiderik.

(ix) Lankidetzaren parte-hartzea eta elkarlana.

- CIC nanoGUNEK lankidetzaren parte-hartze eta talde-laneko ingurune bat eskaintzen du, profesional guztiek modu egokian gara ditzaten beren gaitasun eta baliabideak.
- Profesionalek CIC nanoGUNEren helburu estrategikoak ezagutu behar dituzte, horiekin lerrokatu behar dira eta horien arabera gauzatuko dute beren jarduerak. Era berean, elkarlaneko espirituz jardun beharko dute, CIC nanoGUNEren helburuak eta interesak lortzen lagun dezaketen ezagutzak eta baliabideak erakundearen esku jarriz, eraginkortasunez lan eginez eta CIC nanoGUNEK eskaintzen dizkien baliabideak ondo aprobetxatuz eta erabiliz.



(x) Irudi eta ospe korporatibo egokia.

- CIC nanoGUNEk balio handia aitortzen die, interes-taldeek konfiantza mantentzeko aktibo bezala, irudi instituzionalari eta ospe korporatiboari.
- Hori dela eta, CIC nanoGUNEko profesionalak arduraz jokatuko dute erakundearen irudia eta ospea mantentzeko beren jardun profesional guztietan, eta ez dute egingo zuzenean edo zeharka markari kalte egin diezaiokeen jarduerarik.

(xi) Intimitate-eskubidea.

- CIC nanoGUNEk bete egiten du datuen babesari buruzko legeria, bere enplegatu, bezero, hornitzaile edo hautaketa-prozesuetako hautagaiei dagokienez. CIC nanoGUNEk konpromisoa hartzen du datu horiek behar bezala gordetzeko eta baimendutako xedeetarako erabiltzeko, eta ez ditu zabalduko, salbu eta interesdunaren baimena duenean edo legezko betebeharra denean.
- Profesionalak konpromisoa hartzen dute komunikabideak, informatika-sistemak eta, oro har, beren eskura ipintzen diren bitartekoak arduraz erabiltzeko, helburu horrekin xedatutako politika eta irizpideekin bat etorriz. Bitarteko horiek ez dira erabilera pertsonalekoak eta, ondorioz, ez dira komunikazio pribatuetarako erabili behar. Hori dela eta, ez dute izaera pribaturik izango CIC nanoGUNEk gainbegiratu behar baditu, bere kontrol-eginbeharrak gauzatzeko.
- CIC nanoGUNEk bermatu egiten du ez dituela langileen datu pertsonalak ezagutzera emango, salbu eta interesdunak baimena eman badu eta legezko betebeharra dagoenean, edo ebazpen judicialak edo administratiboak betetzeko. Ildo horretan, beren lanagatik beste profesional edo enpresa batzuen datuetara sartzen diren profesionalak idatzi bat sinatuko dute datu horien konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa hartuz.
- Profesionalen datu pertsonalak ezin izango dira inoiz erabili legearen edo kontratuaren arabera dituzten helburuak ez diren beste batzuetarako.
- Datu pertsonalei buruzko informazioaren galera edo ihesik izanez gero, CIC nanoGUNEk datuak babesteko araudian aurreikusitako neurri guztiak aplikatuko ditu, hondamendien ondoren datuak berreskuratzeko neurriak barne, beharrezkoa bada.

(xii) Informazio erreserbatuaren, konfidentzialaren eta pribilegiatuaren tratamendu egokia.

- CIC nanoGUNEren iritiz, informazioa eta jakintza bere jarduerak gauzatzeko aktibo baliagarrietako bat dira, eta hortaz babes berezia eman behar zaie.
- CIC nanoGUNErena den edo eman zaion informazioak, oro har, informazio erreserbatu eta konfidentzialaren estatusa izango du, eta sekretu profesionalaren eginbeharraren pean egongo da. Horrela, eduki horiek ezin izango zaizkie hirugarrenei eman, salbu eta CIC nanoGUNEk idatzizko baimena ematen badu espresuki, inguruabarrek hala justifikatzen badute edo legezko errekerimendu



bat betetzeko bada, edo egokia bada hori egitea epaile baten edo administrazio baten ebazpena betetzeko.

- CIC nanoGUNEren eta profesional guztien ardurak beharrezko baliabide guztiak ipintzea informazio erreserbatua eta konfidentziala baimendu gabeko atzipenetatik, manipulaziotik eta nahitako zein nahigabeko suntsipenetik babesteko. Horretarako, CIC nanoGUNEko profesionalak beren laneko edukari buruzko konfidentziasuna mantenduko dute hirugarrenekin dituzten harremanetan. Hala egiten ez badute, zehapenak jaso ahal izango dituzte, araudi aplikagarriaren arabera.
- Informazio erreserbatuaren, konfidentzialaren eta pribilegiatuaren galera edo ihesik izanez gero, CIC nanoGUNEk datuak babesteko araudian aurreikusitako neurri guztiak aplikatuko ditu, hondamendien ondoren datuak berreskuratzeko neurriak barne, beharrezkoa bada.

(xiii) Lanean zintzotasunez jardutea.

- CIC nanoGUNEko profesionalak jardun profesional zuzenez eta ardurak handiz gauzatu dute une oro beren ikerketa-lana. Horren erantzule izango dira CIC nanoGUNEren aurrean, bai eta bezero eta hornitzaile, finantza-erakunde, erakunde publiko eta gizarte osoaren aurrean ere.
- Horrela, CIC nanoGUNEko profesionalak zorrotz beteko dute indarreko legeria, eta zintzotasunaren, gardentasunaren, leialtasunaren, fede onaren eta arbitrariotasun ezaren printzipioen arabera jardungo dute. Beren jarduketetan ikerketa-jardunari aplikatzen zaizkion irizpide moral eta etiko gorenak errespetatuko dituzte, eta beren lanean zintzoak, prestuak, arduratsuak, neutralak eta eraginkorrak izango dira, beren jardura profesionalan guztizko arduraz arituz eta ezagutza zientifikoa sustatuz eta hedatuz.
- CIC nanoGUNEk funtsezko printzipio gisa bermatuko du profesionalen ikerketa-askatasuna beren jardunean, jardun horren oinarri izan behar duen pentsamendu-askatasunarekin bat etorriz eta jardun horretan eskuarki onartzen diren printzipio etikoen arabera. Hori guztia hirugarrenean izan litezkeen jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzearen kalterik gabe, bai eta proiektu baten garapenean eragina izan lezaketen muga puntualen kalterik gabe, dela hasieran aurreikusi gabeko gertaerengatik, profesionalen eskura jarritako baliabideengatik edo aurrekontuarekin lotutako arrazoiengatik, besteak beste.
- Era berean, CIC nanoGUNEko profesionalak probetxuzko modu esanguratsu eta oparoan gauzatu beharko dute beren ikerketa-jarduna, CIC nanoGUNEren helburu estrategikoekin bat eginez eta araudien eta bezero, babesle edo finantzatzaileen kontratuen baldintzen arabera, kasuan-kasuan aplikatu behar denaren arabera. Era berean, termino beretan eman beharko dituzte beren ikerketalanean emaitzak. Horretarako, behar diren arduradun hierarkikoen baimen guztiak bilduko dituzte proiektu bakoitza hasi aurretik, bai eta proiektuak iraun bitartean ere, eta arduradun horiei emango diete proiektuko aurrerapenen, balizko atzerapenen edo garapenean eragina duen edozein inguruabarren berri.
- Era berean, beste ikertzaile batzuekin batera eginiko proiektuen kasuan, aurrerapenak, garapena eta



emaitzak parte hartu duten ikertzaile guztiei aitortuko zaizkie. Halaber, behar diren neurri guztiak hartuko dira lana egoki banatzen dela bermatzeko eta, dagokionean, lana ongi eskuordetzen dela ziurtatzeko.

- Horrez gain, beren ikerketen emaitzak behar bezala zabaldu, ustiatu, merkaturatu eta/edo transferitzen direla bermatu beharko dute ikertzaile guztiek eta, batik bat, eskarmentu handienekoek, eta publikoaren esku ere jarriko dituzte egokia denean, hori guztia aplikatu beharreko araudiarekin eta/edo kontratuko klausulekin bat eginez, betiere.
- Profesional guztien betebeharra da beren zuzeneko arduradun hierarkikoari eta/edo, dagokionean, Betetze Batzordeari jakinaraztea zehatzeko prozedura judizial, penal edo administratibo bat hasi, garatu edo amaitu dela, baldin eta profesionala ikertu, auzipetu edo salatu badute eta bere funtzioak gauzatzean eragina izan badezake. Kasu horietan, CIC nanoGUNEk beharrezko diziplina- eta/edo zehapen-neurriak aplikatuko ditu, kasuaren arabera.
- Profesionalek loturarik badute alderdi politikoeekin edo CIC nanoGUNEren jardueratik kanpo aritzen diren beste erakunde edo instituzioekin, edo horien kideak edo kolaboratzaileak badira, jarduera horiek egitean argi utziko da modu pertsonalean garatzen direla, CIC nanoGUNEren eta erakunde horien arteko loturarik gabe, CIC nanoGUNE une oro politikoki neutrala izango delarik.
- Azkenik, CIC nanoGUNEko profesionalek, sare sozialetan, foroetan edo blogetan profilak sortzen badituzte eta horko kide badira edo horietan parte hartzen edo kolaboratzen badute, eta kanal horien bidez iritziak plazaratzen badituzte, horien izaera pertsonala argi geratzeko moduan egingo dute, eta debekatua dago CIC nanoGUNEren izenean erabiltzea, aipatzea edo jardutea ingurune horietan. Iritziak CIC nanoGUNEko profesional gisa egingo balira, modu ordenatu eta koordinatuan egingo dira, zuzeneko arduradun hierarkikoak egokiak direla egiaztatu ondoren. Edonola ere, beti gordeko dute CIC nanoGUNEri buruzko edozein informaziori buruzko sekretua eta konfidentzialtasuna komunikabideen aurrean.

(xiv) Berrikuntza sustatzea eta informazioa babestea.

- CIC nanoGUNEk ulertzen du berrikuntza eta ezagutzaren sustapena eta hedapena ezinbesteko balioak direla egungo enpresa-kudeaketarako eta gauzatzen duen ikerketa-jarduera ahalik eta ondoen emateko. Horregatik, prozesuen eta produktuen eta horien oinarrian dagoen *know-how*aren etengabeko hobekuntza sustatzen dute, eta bermatu egiten dute jarduera egin bitartean sortutako datuak, informazioa eta ezagutza guztiz babestuta geratzen direla.
- Horrela profesionalek eskuratzen duten informazioa eta ezagutza zaindu eta babestuko dute, eta beren funtzioak ongi gauzatzeko beharrezkoa den heinean baino ez dute erabiliko, modu arduratsu, eraginkor eta jarduera profesionalaren ingurunerako egokian, indarreko baimen-prozedura guztiak betetz.

(xv) Osasun publikoa eta ingurumena babestea.

- CIC nanoGUNEk osasun publikoaren eta ingurumenaren arloko legeria aplikagarria betetzen du. Era



berean, ingurumenarekin zein osasun publikoarekin lotutako balizko gertakariei buruzko babes eta etengabeko hobekuntzako prozedurak ditu ezarrita, alor horiek babesteko legeen eta xedapen orokorrek urraketa oro saihesteko.

6. BETETZE BATZORDEA

Betetze Batzordeak zainduko du kode etikoa eta Arrisku Penalen Prebentzio Programan sartutako gainerako dokumentuak behar bezala betetzen eta errespetatzen direla. Horretarako, dokumentu horiek ezagutarazi eta zabaltzeko lana egingo du, bai eta CIC nanoGUNEko profesionalen artean horien ulermena sustatuko ere. Gainera, urtean behin, gutxienez, dokumentuak berrikusiko ditu eta, inguruabarren arabera beharrezkoa denean, eguneratu egingo ditu.

Betetze Batzordearen ardura izango da, halaber, kode etiko honetan jasotako printzipioekin bat egiten ez duen jokabide irregular ororen inguruko ikerketa sustatzea eta gauzatzea, baita delitutzat hartzeko modukoa ez denean ere, dagozkion izapideak eginez eta aplikatzekoak diren diziplina- eta zehapen-araubideko arauak aplikatuz.

Baldin eta profesional batek legearen edo kode etikoaren kontrako jarduerak egiten ari direla badaki edo hori pentsatzeko arrazoizko zantzuak baditu, salaketa-kanalaren bidez eman beharko du horren berri, kanal horren erabilera-arauen arabera (Arrisku Penalen Prebentzio Programan daude jasota arau horiek).

Salatzailearen nortasuna konfidentziala izango da, eta ezingo da inolako diziplina-neurririk hartu, zuzenean zein zeharka, pertsona horren kontra salaketa jartze hutsagatik, salatuei indarreko araudiaren arabera dagozkien eskubideen kalterik gabe. Horrez gain, Betetze Batzordeak jasotako jakinarazpen guztiak konfidentzialak izango dira, kasuan-kasuan dagozkien agintaritza judizial edo administratiboei jakinarazpena bidaltzearen kalterik gabe.

Betetze Batzordeak, halaber, kode etikoaren betetze-mailari buruzko txosten bat egingo du urtero. Txosten horren edukia ikusirik, CIC nanoGUNEk beharrezko aldaketak edo eguneratzeak txertatuko ditu kode etikoan.

7. KODE ETIKOA INDARREAN JARTZEKO DATA ETA INDARRALDIA

Kode etikoaren aldaketa hau CIC nanoGUNEren zuzendaritza-batzordeak eta batzar nagusiak onetsi zuten 2020ko ekainaren 18an. Berehala jarri zen indarrean, eta hala jarraituko du dokumentuan aldaketarik egiten ez den bitartean.